

**HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA**

960

**70/1990 DEKRETUA**, martxoaren 20koa, ingurugiroa-rekiko heziketa eta ikerketarekin zerikusia duten ihardunak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen duena.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen Euskal Autonomi Elkarteko Autonomia Estatutuaren 11.1 atalean xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteari dagokio Ingurugiro eta Ekologia gaietako Estatuaren oinarrizko legerien lege garapena eta egiterapena.

Halaber, 1987.eko urriaren 17an Europako Elkartetako eta Elkartekideen Gobernuetako ordezkariek Kontseiluan bilduta, Kontseiluak 1987-1992 denboraldirako ingurugiro gaietarako Europako Elkarteen ihardunaren politika eta programa baten jarraipena eta ezarpesa egiteko Erabakia hartu zuen; eta Erabaki horrek, ingurugiro gaietako informazioa jendartera iristeko bideak hobetu daitezten, neurriak hartzeko premia ezartzen du, gai horretan beharrezko diren neurrien bilakaera eta onarpen publikoa bultzatzeko lagunduko dutenak; Erabaki horrek aipatzen du, halaber, oinarrizko dela ingurugiro gaietako heziketa, ingurugiroko gaien buruzko sensibilizazioa jendearen gain areagotzea, eta, ingurugiro gaietako politika eta pentsamendua garatzeko ere, funtsezko dela gobernuak ez diren elkarteen eginbeharra.

Ildo beretik, hezkuntza eta heziketa alorretan ingurugiroaren aurkako erasoei aurre hartzeko ekintzei buruz Kontseiluaren Ebazpen proposamenak ezartzen duenez, irakaslegoaren ezagutzak garatzeko neurri egokiak hartuko dituzte Elkartekideetako ahal-mendun agintariekin, bai hasierako heziketan zein etengabeko heziketan; eta esperientzia piloto eta ikerketa proiektuen bidez horien hobekuntza lortzeko beharrezko ekintzak hasiko dituzte, irakaslegoaren eta ikasleen eskuetan material pedagogiko egokia ipintzea, eta ingurugiroarekin zerikusia duten zientzia gaietako espezialisten prestakuntza erraztuko dute.

Politika mota hori garatuz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak dirulaguntzak emateko programa batzuk ezarri ditu irakasle, ikastetxe, talde ekologista, eskolatik kanpoko ingurugiro gaietako hezkuntzako ikastetxe eta elkarte, erakunde edo instituziontzako, Euskal Autonomi Elkarteko biztanlegoak ingurugiroari buruz duen kontzientzia hobetzeko, ingurugiro gaietako oinarrizko ezagutza errazteko eta Ingurugiro arloan teknikoak prestatzeko.

Ondorioz, Dekretu honen xedea da Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak laguntza horiek emateko jarraituko dituen oinarri-arau orokorrak eta gutxienezko erizpenak ezartzea, gero horiek garatzeko emango diren arauen eusgarri izan daitezen.

Era honetan, Euskal Autonomi Elkarteko Aurre-

**DEPARTAMENTO DE URBANISMO, VIVIENDA  
Y MEDIO AMBIENTE**

960

**DECRETO 70/1990**, de 20 de Marzo, por el que se regula la concesión de subvenciones para la realización de actividades relacionadas con la formación e investigación ambiental.

De conformidad con lo establecido en el artículo 11.1 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio de la legislación básica del Estado en materia de Medio Ambiente y Ecología.

Asimismo, la Resolución del Consejo de las Comunidades Europeas y de los representantes de los Gobiernos de los Estados Miembros reunidos en el seno del Consejo, de 17 de octubre de 1987, relativa a la continuación y aplicación de una política y de un programa de acción de las Comunidades Europeas en materia de medio ambiente para el periodo 1987-1992, establece la necesidad de tomar medidas para mejorar el acceso al público de la información en materia de medio ambiente, que contribuyan a apoyar la evolución y la aceptación pública de las medidas necesarias en la materia, y señala que la educación en medio ambiente es fundamental para sensibilizar al público sobre temas medioambientales y que la función de las organizaciones no gubernamentales en el desarrollo de la política y el pensamiento en materia de medio ambiente es fundamental.

En la misma línea, la propuesta de Decisión del Consejo relativa a la prevención de las agresiones al medio ambiente mediante acciones en los campos de la educación y la formación, establece que las autoridades competentes de los Estados miembros adoptarán las medidas adecuadas para desarrollar los conocimientos del personal docente, tanto en su formación inicial como en la formación continuada, favorecer su perfeccionamiento mediante experiencias piloto y proyectos de investigación, emprenderán las acciones necesarias para poner a disposición del personal docente y de los alumnos el material pedagógico adecuado, y favorecerán la formación de especialistas en las diferentes disciplinas relacionadas con el medio ambiente.

En desarrollo de dicha política, el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente ha establecido programas de concesión de subvenciones a colectivos de profesores, centros escolares, grupos ecologistas, centros de educación medioambiental extraescolar, y asociaciones, organismos o instituciones, con la finalidad de favorecer la concienciación ambiental de la población de la Comunidad Autónoma, facilitar el conocimiento básico de los temas ambientales y formar técnicos en Medio Ambiente.

Constituye, en consecuencia, el objeto de la presente disposición establecer las bases generales y criterios mínimos que han de regir el otorgamiento de tales ayudas por parte del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, y que han de servir de soporte a las normas que se dicten en su desarrollo.

En este sentido, en función de las previsiones

kontu Nagusietan egindako diru izendapenen arabera, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak urtero onartuko ditu laguntzitarako deialdiak araikoko dituzten arauak; horien bidez ezarriko dira arauon eremua, agindutako diru kopurua, gehienezko kopurua, beharkizunak, procedura eta laguntzak egoki izapidatzeko beharrezko puntu eta berezitasun guztiak.

Ondorioz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren proposamenez, 1990.eko martxoaren 20an Jaurlaritzako Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren honako hau

#### XEDATU DUT:

*1. atala.* – Dekretu honen xedea da Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak laguntzak emateko jarraituko dituen oinarri-arau orokorrak eta gutxieneko erizpenak ezartzea, Ingurugiro gaietan biztanlegoaren heziketa lortzeko, ingurugiro gaien zabal-kundea eta ezagutza errazteko eta gai horretako teknikoak prestatzeko.

*2. atala.* – Xedapen honetan araututako laguntzak ematea eskatu ahal izango zaio Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, Dekretu honetan eta berau garatzeko emango diren xedapenetan ezarritako baldintza, beharkizun eta prozeduraren arabera.

*3. atala.* – 1. – Dekretu honetan ohartemandakoaren arabera, honako ihardunak burutzeko eman ahal izango dira diru laguntzak:

a) Ingurugiroarekin zerikusia duten ihardunak egin eta taiutzeo, Euskal Autonomi Elkartean kulturiko ikastetxeetako irakasle taldeek aurkeztuko ihardunak, hain zuzen.

b) Ingurugiroari buruzko Hezkuntza eta Ikerketa Zentruetara ikasleak eramateko garraioak.

c) Ingurugiro gaietako teknikarien prestakuntza eta hobekuntzarako ingurugiro arloko ikastaro, ihardunaldi edo mintegiak antolatzea eta burutzea.

d) Legez eratutako talde eta elkarrekin antolatu eta burututako ikastaro, ihardunaldi, mintegi, naturako gela, babeserako kanpainak eta abar egitea, Euskal Autonomi Eikarteko eremuan ingurugiroari buruzko gaietan informazio, hezkuntza eta sensibilizazio hobia dakartzaten neurrian.

e) Euskal Autonomi Elkarteko ikasleek eskolaz kanpoko ingurugiro hezkuntzarako ikastetxeetako programetan parte hartzeko bideratutako ihardunak.

2. – Aurreko idazatian aipatu ez arren ingurugiroko heziketarekin zerikusia duten beste ihardun batzuei ere eman ahal izango zaizkie dirulaguntzak, xedapen honetan eta berau garatzeko emandako arauetan ohartemandako moduan guztiengintza interesera-ko direla ulertzten bada.

*4. atala.* – Aldian-aldian laguntzak emateko egindo diren deialdiak, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuak emandako Aginduen bidez argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, indarrean dauden aurrekontuei buruzko xedapenetan

contenidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente aprobará anualmente las normas que regulen las convocatorias de ayudas, en las que se establecerán el ámbito de las mismas, el importe comprometido, la cuantía máxima, los requisitos, procedimiento, y todos aquellos extremos y particularidades necesarios para su adecuada tramitación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del dia 20 de marzo de 1990,

#### DISPONGO:

*Artículo 1.* – Constituye el objeto del presente Decreto el establecimiento de las bases generales y criterios mínimos que han de regir la concesión de ayudas por parte del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, para la formación de la población en materia de Medio Ambiente, la divulgación y conocimiento de los temas ambientales, y la formación de técnicos en la materia.

*Artículo 2.* – Podrá solicitarse del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente la concesión de las ayudas reguladas en la presente disposición, de acuerdo con las condiciones, requisitos y procedimiento que se establecen en el presente Decreto y en las disposiciones que se dicten en su desarrollo.

*Artículo 3.* 1. – De conformidad con lo previsto en el presente Decreto, podrán ser otorgadas ayudas económicas para la realización de las siguientes actividades:

a) Realización y diseño de actividades relacionadas con el medio ambiente, presentadas por colectivos de profesores de centros escolares ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Transporte de escolares a Centros de Educación e Investigación Ambiental.

c) Organización y realización de cursos, jornadas o seminarios en materia de medio ambiente, que contribuyan a la formación y perfeccionamiento de técnicos ambientales.

d) Organización y realización de cursos, jornadas, seminarios, aulas de la naturaleza, campañas de protección y otras realizadas por grupos y asociaciones legalmente constituidas, que propicien una mejora de la información, educación y sensibilización sobre temas de medio ambiente en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Actividades tendentes a la participación de escolares en programas de centros de educación ambiental extraescolar de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. – Podrán ser otorgadas subvenciones para otro tipo de actuaciones relacionadas con la formación ambiental no contempladas en el apartado anterior, que sean consideradas de interés general conforme a los términos previstos en la presente disposición y en las normas dictadas en su desarrollo.

*Artículo 4.* – Las convocatorias periódicas para la concesión de ayudas revestirán la forma de Orden del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, y serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco en los plazos previstos en las disposicio-

ohartemandako epeetan, edo Ogasun eta Finantza Sailak horretarako agindu ditzanetan.

**5. atala.** — Argitaratu daitezen deialdiek, gutxienez, honako puntuak izango dituzte:

a) Deialdiaren xede: horren eremua eta hartzaleak nortzuk diren berariz xehaztuta utziko da.

b) Laguntzak emateko era arautuak.

c) Proceduraren beharkizunak, hala nola: eskabideak nori aurkeztu behar zaizkion, horiek aurkezteko epea, eskabidea egiteko modua eta deialdia erabakitzeko epea.

d) Deialdiko xede diren laguntzetaarako izendatuko den diru kopurua.

e) Dirulaguntza bakoitzaren gehienezko kopurua.

f) Laguntzak egoki izapidatzeko beharrezko puntu eta berezitasun guztiak.

**6. atala.** — Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak erabaki bidez zehaztuko du behin betiko zeintzuk diren onuradunak eta nolako kopuruak izendatzen zaizkien laguntzatzat, eta interesatuei jakinaraziko die ukatu ala onartu egin zaizkien eskatutako laguntzak.

**7. atala.** — 1. — Laguntzak ordaintzeko ezinbesteko beharkizuna izango da, esleipendunak Ingurugiro Sailordetzari agiriak aurkeztea, dirulaguntzaren xede zen iharduna benetan burutu dela eta dirulaguntzaren kopurua eman zen helburu zehatzerako erabili dela egiaztatuz, hain zuzen.

2. — Dena delako ihardunen bat aldez aurretik egin ezin bada, emandako dirulaguntzaren arabera finantzatu behar delako, alegia, finantzazio osoa edo zati bat aurreratu egin ahal izango da, hurrenez hurren, dirulaguntza osoaren edo zatiaren kopuruko bankuko abala aurkezten badu esleipendunak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailordetzaren alde. Dena delako iharduna burutu ondoren, goian aipatutako ziurtagiria aurkezten denean, Sailordetzak askatu egingo du esandako abala.

3. — Aukera hori ez da ezargarri izango dirulaguntzak emateko deialdiko Aginduan berariz hori jasotzen ez denean.

**8. atala.** — Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak diruz lagundutako ihardun guztietañ argitaturako material idatzietan, liburusketan eta irarkietan laguntza horren aipamen zehatza egin beharko da. Idatzizko eta zabalkunderako material horren aldaki bat bidali beharko zaio Ingurugiro Sailordetzari.

**9. atala.** — Dekretu honetan xedatutakoaren eremuan, aurreko urtealdian emandako laguntzen zerrenda argitaratuko du Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak urtero urtarrilean.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengo.** — Dekretu honetan xedatutakoaren aurka edo horrekin kontraesanean dauden maila berdinako edo apalagoko xedapen guztiak indar gabe uzten dira.

nes presupuestarias en vigor, o en aquellas que dicte al efecto el Departamento de Hacienda y Finanzas.

**Artículo 5.** — Las convocatorias que se publiquen contendrán como mínimo los siguientes extremos:

a) El objeto de la convocatoria, en el que se determine expresamente su ámbito y destinatario.

b) La forma de articular la concesión de las ayudas.

c) Los requisitos de procedimiento, tales como órgano ante el que deben presentarse las solicitudes, plazo de presentación de las mismas, forma de efectuar la solicitud y plazo de resolución de la convocatoria.

d) El importe comprometido para las ayudas objeto de la convocatoria.

e) La cuantía máxima de cada subvención.

f) Todos aquellos extremos y particularidades necesarios para la adecuada tramitación de las ayudas.

**Artículo 6.** — El Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, procederá a dictar resolución en la que se determinarán de forma definitiva los beneficiarios y las cuantías de las ayudas a otorgar, y notificará a los interesados la denegación u otorgamiento de las ayudas solicitadas.

**Artículo 7. 1.** — Para el abono de las ayudas será requisito imprescindible que el adjudicatario aporte a la Viceconsejería de Medio Ambiente, documentación acreditando que la actividad objeto de la subvención ha sido efectivamente realizada, y que el importe de la subvención se aplica a la concreta finalidad para la que se concedió.

2. — En el caso de que la actividad no pudiera ser realizada con antelación, por requerir ser financiada precisamente en base a la subvención concedida, dicha financiación anticipada total o parcial, podrá tener lugar siempre que el adjudicatario presente aval bancario por el importe íntegro o parcial de la subvención, respectivamente, en favor de la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente. Dicho aval será librado por ésta cuando, una vez realizada la actividad en cuestión, se produzca la justificación a la que más arriba se alude.

3. — Tal posibilidad no será de aplicación cuando en la Orden de convocatoria de la subvención no se prevea expresamente.

**Artículo 8.** — Toda actividad subvencionada por el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente deberá hacer mención expresa de tal situación en material escrito, folletos y carteles que dicha actividad requiera. Una copia de este material escrito y divulgativo deberá ser enviada a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

**Artículo 9.** — En el mes de enero de cada año, el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente hará pública la relación de las ayudas concedidas en el ejercicio anterior en el ámbito de lo dispuesto en el presente Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** — Quedan sin efecto las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan o contradigan lo dispuesto en el presente Decreto.

**Bigarrena.**— Dekretu hau garatzeko beharrezko eristen diren xedapen guztiak emateko baimena emanen zaio Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari.

**Hirugarrena.**— Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1990.eko martxoak 20.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua,

JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

**Segunda.**— Se autoriza al Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, a dictar cuantas disposiciones se estimen necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

**Tercera.**— El presente Decreto entrará en vigor al dia siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de Marzo de 1990.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente,

JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

## Agintariak eta Langilegoa Autoridades y Personal

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

961

**ERABAKIA.** 1989.eko uztailaren 23koa, Euskal Herriko Unibertsitatearena, Unibertsitate honen Irakasle Emeritu bat izendatzen duena.

Unibertsitate-Irakaslegoaren erregimenari buruzko apirilaren 30eko 898/1985 Errege Dekretua aldatzen duen ekinaren 13ko 1200/1986 Errege Dekretuaren 22. atalean xedaturikoa ikusirik;

Unibertsitate honen Estatutuen 119. atalean xedaturikoa ikusirik;

1988.eko abenduaren 22ko Unibertsitateen Kontseiluaren Akademi Batzordeak emaniko aginduzko txostena ikusirik;

Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoreak eginiko izendapenaren proposamena, 1989.eko uztailaren 21eko Gobernu-Batzarreak onarturikoa, ikusirik;

Kasu honetarako egokitasun legal eta orokorra duten araez bat etorririk eta indarrean dagoen arautegiaren aginduzko izapide guztiak bete ondoren;

Unibertsitate-Erreformaren abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoak, bereziki, aipaturiko lege-textuaren 18. atalak, bai eta Unibertsitate honen Estatutuen 75. atalak ere, ematen dizkitaten eskubideak erabiliz, ondoko hau

#### ERABAKI DUT:

**Atal bakarra.**— Gonzalo Martín Guzmán Jauna Euskal Herriko Unibertsitatearen Irakasle Emeritu izendatzea, indarrean dagoen arautegiak esleitzen dizkien eskubide eta betebeharrekin, eta 1989.eko urriaren letik aurrera ondorioak izanez.

Leioa, 1989.eko uztailak 23.

Errektorea,

EMILIO BARBERA GUILLEM.

#### UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

961

RESOLUCION de 23 de julio de 1989, de la Universidad del País Vasco, por la que se nombra Profesor Emérito de esta Universidad.

Visto lo dispuesto en el artículo 22 del Real Decreto 1200/1986, de 13 de junio, que modifica el Real Decreto 898/1985, de 30 de abril, sobre el régimen de profesorado universitario;

Visto lo dispuesto en el artículo 119 de los Estatutos de esta Universidad;

Visto el informe preceptivo que emitió la Comisión Académica del Consejo de Universidades, con fecha 22 de diciembre de 1988;

Vista la propuesta de nombramiento realizada por el Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y aprobada por la Junta de Gobierno del dia 21 de julio de 1989;

De acuerdo con las normas de legal y general aplicación para este caso y cumplidos todos los trámites preceptivos en la normativa vigente:

Haciendo uso de las prerrogativas que me otorga la Ley Orgánica 11/1983 de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, en concreto el artículo 18 del mencionado texto legal, así como el artículo 75 de los Estatutos de esta Universidad,

#### HE RESUELTO:

**Artículo único.**— Nombrar Profesor Emérito de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, con los derechos y los deberes que les otorga la normativa vigente y con efectos de 1 de octubre de 1989 a: D. Gonzalo Martín Guzmán.

Leioa, 23 de julio de 1989.

El Rector,

EMILIO BARBERA GUILLEM.